

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Josefina Lete Larrañaga

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1934-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Antzuolako Elekrika etxean jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Polleruenekua. Antzuolako eskola publikoan ikasi zuen hamalau urtera arte, eta gero urte pare batez kontabilitatea ikasi zuen Bergaran. Elekrika etxearen ondoan, zentral elektrikoaz gain zerratokia ere bazuten, aitzak kudeatzen zuena. Baserritarrek gurdietan ekartzen zuten egurra, eta zerran ebaki eta gero, inguruetako herrietan saltzen zuen aitzak. Josefinak zerrategian egin zuen lan hamabost urte zituenetik ezkondu zen arte. Antzuolako Amezkoanekoa etxera ezkondu zen, bertako [Gregorio Madariaga](#) harakinarekin. Ordutik aurrera, sei seme-alaba hazteaz gain, txorizoak eta odolkiak egin eta dendan laguntzen zuen. Arrandegia jarri zuten gero, eta Josefina kalez kale orgarekin ibiltzen zen arraina saltzen. Arrandegia kendu eta fruta-denda izan zuten bi urtez.

Zintak

ANT-089

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-17
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Ezkertia izateagatik eskolan arazoak

- **Erref:** ANT-089/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Josefina ezkertia da eta eskolan ezkerrarekin idazterakoan maistrak eskuan jotzen zuen: gerora ikasi zuen beste eskuarekin idazten. Señorita Nati zen hori egiten ziona, baina hala ere jatorra zela dio. Beste bati, oster, ezkerrarekin egiten uzten zion.

2. Gazterik zerrategian lanean

- **Erref:** ANT-089/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:16:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Umea zela amamaren etxera joan ziren bizitzera, Elekrika etxera. Herriari argindarra emateaz arduratzeaz gain zerrategia era bazuten. Gazterik hasi zen ahizparekin batera zerrategian lanean. Kamioian egur asko eramaten zuten Bergarara. Egurra baserritarrek eramaten zien gurdian. Pagoa, haritza, urkia eta haltza erabiltzen zen batez ere.

3. Zerrategian gizonezkoen laguntza behar

- **Erref:** ANT-089/011
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zerrategian egurra palankekin mugitzen zuten, gizonezkoen bat beharrezkoa zuten, ahizpa eta bera ez ziren bakarrik moldatzeko gai. Enborrei azala ez zieten beti kentzen. Edozein tamainatan mozten zituzten, eskaeraren arabera.

4. Plazan pisatzen zuten egurra

- **Erref:** ANT-089/013
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:19:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zerrategira egunero heltzen ziren egurra zekarren gurdia asko. Plazan zegoen pisua eta bertan pisatzen zituzten.

5. Argindarra Antzuola guztira ematen zuten

- **Erref:** ANT-089/018
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:23:58. **Bukatu:** 00:24:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Bere etxetik, Elekrika etxetik, Antzuolako herrira argindarra ematen zuten. Horren funtzionamendua azaltzen du.

6. Polea berak martxan zerrategia eta argindarra

- **Erref:** ANT-089/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Uholde batzuetan herriari argindarra ematen zion zentraleko makinak urak hartu zituen. Errekak berak zerrategia martxan jartzea eta argindarra sortzea ahalbidetzen zuen. Polea bera erabiltzen zuten baterako zein besterako: egunez zerrategian jartzen zuten eta gauez zentrolean.

7. Etxez etxe argindarra kobratzen

- **Erref:** ANT-089/025
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:34:27. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argindarraren zentrala etxean zutenez, eurak arduratzen ziren etxerik etxe joateaz eta kobratzeaz.

8. Olio urtu behar

- **Erref:** ANT-089/028
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, errazionamendu-baleak dendak trukatu behar izaten ziren. Dendan bertan olioaren urtu egin behar izaten zen. Beraien etxean bospasei arroako txerria, (arroa 1= 12.5 kg), hiltzen zuten eta urdaiazpikoa, txorizoa... izaten zuten, hori dela-eta ez zuten goserik ezagutu. Ez zuten behirik eta esnea baserri batetik eramaten zien. Jendeak oso gaizki pasatu zuen.

9. Maristei erretako elizako baliodun gauzak beraien etxean zituzten gordeta

- **Erref:** ANT-089/029
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:41:42. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Gerran beraien etxe ondoan zeuden maristen eliza erre zuten. Erre aurretik elizako baliodun gauzak (kaliza...) beraien etxean gorde zituzten eta trukean maristek jeneroa (azukrea...) ematen zien. Inork ez zekien Elektrikako etxean gordetzen zituztenik Elizako objektuak. Gauean eramaten zituzten gauzak eta inork ezin zuen ikusi.

10. Uztailaren 2a, maristen ordenazio eguna

- **Erref:** ANT-089/030
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Marista gazte asko zeuden Antzuolan. Uztailaren 2a zen abitua hartzeko eguna. Ordenaziorako jende asko batzen zen. Bertan zeuden maristak gazteak ziren eta haiei tentatzen ibiltzen ziren.

11. Harategiak ez zuen ordutegirik

- **Erref:** ANT-089/037
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:24. **Bukatu:** 01:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bere ustez harakinaren lana gogorra da. Baserritarrak goizeko sei eta erdietako mezara joaten ziren domeketan eta ordurako harategia zabalik izan behar izaten zuten. Behin, beraien alaba bikien bataio egunean bazkaltzen zeudela, hiru bezero joan zitzaizkien bila bazkaltzen zeuden tokira.

12. Gurdiarekin arraina saltzera

- **Erref:** ANT-089/042
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:11:14. **Bukatu:** 01:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Antzuolako arrandegi bakarra zen beraiena. Herri luzea da eta gurdiarekin joaten zen etxez etxe arraina saltzera.

13. Ondarroako portuan tratu desatsegina

- **Erref:** ANT-089/045
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:14:27. **Bukatu:** 01:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Batik bat Ondarroako portura joaten ziren arraina erostera, baina ez zuen gustuko. Hango jendea izaera gogorrekoa da eta ez zioten errespetua bata besteari. Hitz itsusi asko entzuten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com